

Donostia, 2025eko urtarrilaren 23a

10/25 PRENTSA OHARRA
DBUSEN AUTOBUS ZERBITZUA ANOETARA
REALA – GETAFE C.F.

Urtarrilaren 26an, igandean, Dbusek auzo desberdinetatik Anoetaraino (Reale Arena) doazen autobus zerbitzu bereziak eskainiko ditu **Reala eta Getafe-ren** arteko **16:15ean** izango den partidarako.

Boulevard eta Urbietatik:

28, 26 y 21 lineak eta FT linea berezia 15:15etik minutu gutxiro.

Grosetik:

- Zerbitzuak **Groseko Anbulatoriotik**, hurrengo geltokiekin: Nafarroa Hiribidea, Ategorrieta, Galtzara Nagusia, Colón Pasealekua eta Renfe-Bus Geltokiak:
17 linea eta FT linea berezia 15:15etik 10-15 minuturo.

Antiguotik:

- Irteerak **Lugaritz 27tik**, eta geltokiak Tolosa Hiribidean, Zumalakarregi Hiribidean eta Pio Barojan:
FT linea berezia, 10 minuturo, **15:15etik 16:05era arte**.

Altzatik:

- Zerbitzuak **Santa Barbaratik** (Altza), Altzan geltokia egin eta 5 min. Ondoren Larratxon:
FT linea berezia, 15:15ean.

Intxaurrondo eta Egiatik:

- Zerbitzuak **Txara-Zarategitik**, eta geltokiak ondoren Egian, Loiolan eta Erriberetan:
27 linea eta FT linea berezia, 15:15, 15:30 eta 15:45ean.

Bidebieta, Herrera, Intxaurrondo Zaharra eta Ategorrietatik:

- Zerbitzua **Pasai San Pedro 25-etik**, eta geltokiak Juan XXIII (Bidebieta), Kontadoreak, Mirakruz Gaina, Ategorrieta, Galtzada Nagusia, Colón Pasealekua eta Renfe-Bus Geltokiak:
FT linea berezia, 15:25ean.

Martutene eta Loiolatik:

- Ohiko zerbitzuak **Martutene** eta **Loiolatik 26 linearen ibilbidearekin**
26 linea, 15:10, 15:30 eta 15:50ean.

Aietetik:

- **31 linearen** ohiko zerbitzuak **Aietetik** (La Cumbre), Aiete Pasealekua, Oriamendi eta Begiristain-etik Anoetaraino, 60 minutuz behin.

PARTIDA OSTEKO AUTOBUSAK AUZOETARA

Partida amaitu ondoren auzo guztietara zerbitzu bereziak eskainiko dira.



- 1** Antiguo: Errondo Pasealekutik, Lugaritz, eta Tolosa Hiribidetik, Zumalakarregi 9raino.
- 2** Gros, Ategorrieta eta Bidebieta: Gernikako Arbola pasealekutik eta ondoren 17-GROS-AMARA-MIRAMON-en ibilbide berdina Jai Alairaino, Ategorrietatik jarraituz Juan XXIII-raino (Bidebieta).
- 3** Amara eta Erdia: 28-AMARA-OSPITALEAK linearen ibilbide berdina Boulevarderaino.
- 4** Egia, Intxaurren eta Altza: Zorroaga Pasealekutik (geldialdia La Salleko biribilgunean) eta Sarasola Zubitik Egiaraino, non 24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO ibilbidearekin jarraituko duen, Arriberiraino (Altza). Ez da Loiolan sartzen edo Garberatik igotzen. Irteera partida amaitu eta 15 minutura gutxi gorabehera.
- 5** Loiola eta Martutene: 26-AMARA-MARTUTENE linearen ibilbide berdina. Irteera partida amaitu eta 15 minutura gutxi gorabehera.
- 6** Ospitaleak-Miramon-Aiete: Errondo pasealekutik Izoztegi, Lazkano, Aiete pasealekua, Miramon eta Ospitaleak. Irteera partida amaitu eta 15 minutura gutxi gorabehera.